



EDAFOLOGIAKO ARIKETAK

4. GAIA

Ariketa 26. *Soil Taxonomy* sailkapenaren nomenklatura (I)

26.1. Ordenatu ondoko terminoak bere maila hierarkikoaren arabera: handienetik txikienera (hots, ordenatik seriera).

- *natrixeralf*
- *bertisola*
- *udolf*
- *xerofluvent*
- *palexeralf petrokaltzikoa*
- *argiudoll tipikoa*
- *udult*
- *dystroxerept akuikoa*
- *acraquox*
- *sulfaquent*
- *palexeralf natrikoa*
- *natrixeralf tipikoa, fina, nahasia eta mesikoa*

26.2. Adierazi zein ordena eta azpi-ordenako kideak diren aurreko lurzoruak

26.3. Deskribatu hiruzpalau lerrotan lurzoru horien ezaugarri nagusiak. Zeintzuk lirateke egokienak nekazaritzarako?

Ariketa 27. *Soil Taxonomy* sailkapenaren nomenklatura (II)

Ondoko deskribapenak irakurri eta adierazi zein ordenakoak diren lurzoru horiek. Horrez gain, esan zein eskualde klimatikoan eta baldintzetan garatu diren.

- Lurzoru azidoa, oso meteorizatua, lixibatua eta garapen-maila altukoa. Burdin eta aluminio oxidoen pilaketa. Emankortasun baxukoa.
- Buztin ugari dituen lurzorua. Hezetasun-mailaren aldaketek bolumen aldaketa nabariak eragiten dituzte, baita arrakalen agerpena ere. Honek arazo larriak eragin daitezke eraikin eta azpiegituretan.



- Gutxi meteorizatutako eta eraldatutako lurzorua, ez garatua, sortu berria. Azalera freatikoa gainazalitik gertu kokatzen da eta, hortaz, ez da batere egokia hobi septikoak eraikitzeko.
- Mertzikondoak bezalako fruta-arbolak landatzeko egokia ez den lurzoru taldea, izan ere bere sustraien asfixia dela eta hil egiten dira. Azalera freatikoa gainazalitik gertu kokatzen da eta horizonteek gris kolorea dute.

Ariketa 28. *World Reference Base* sailkapenaren nomenklatura (I)

Aipatu beheko zerrendako erreferentziako lurzoru-taldeak izendatzeko elementuak, etimologia eta horien ezaugarriak hiruzpalau lerroetan.

- *Regolosola*
- *Kalzisola*
- *Gleisola*
- *Histosola*
- *Bertisola*
- *Anthrosola*
- *Chernozem*
- *Solonetz*

Ariketa 29. *WRB eta ST* sailkapenen lurzoru-moten konparaketa

Ezkerreko zutabeko erreferentziako lurzoru-taldeak eta eskuineko zutabeko ordenenak korrelazioan jarri. Bikote bakoitzaren berezko ezaugarriak aipatu.

Ferralsol

Alfisol

Cambisol

Fluvent

Luvisol

Aquent edo aquept

Podzol

Espodosol

Gleisol

Oxisol

Fluvisol

Inzeptisol



Ariketa 30. *World Reference Base* sailkapenaren nomenklatura (II)

Lurzoruen maparen arabera aztertu nahi dugun lurzorua *ferralsol multzoko lixiko betiko* motakoa da. Talde honen izenak ematen duen informazioa kontuan hartuta, hurrengo galderak erantzun:

- 30.1.** Lurzoruaren laginketa egitera joango garen egunean, gomendagarria litzateke aterkia eramatea?
- 30.2.** Profilean erraz bereiziko dira horizonteen mugak?
- 30.3.** Buztin asko izango du lurzoruak?
- 30.4.** Lurzorua egokia da alpapa ereiteko?